



AGINDUA,
2026KO
MARTXOAREN 12KOA,
OSASUNEKO SAILBURUARENA,
ZEINAREN BIDEZ ALDEZ
AURRETIK ONARTZEN BAITA
HASIERA EMATEA EUSKADIKO
OSASUN PUBLIKOAREN LEGEAN
AURREIKUSITAKO PARTAIDETZA-
ORGANOAK ARAUTZEN DITUEN
DEKRETU-PROIEKTUA.

Osasuneko sailburuaren 2026ko
otsailaren 20ko Aginduaren bidez,
hasiera eman zitzaion Euskadiko
Osasun Publikoaren Legean
aurreikusitako partaidetza-organoak
arautzen dituen dekretu-proiektua
egiteko prozedurari.

Dekretuaren helburua da Euskadiko
Osasun Publikoaren azaroaren 30eko
13/2023 Legean (aurrerantzean,
EOPL) jasotako bi alderdi garatzea.

Lehenik eta behin, EOPLren 36.
artikuluak aurreikusten du
administrazio publikoek osasun
publikoaren arloan garatzen dituzten
politikak eta jarduketak koordinatzen
dituen organoa dagoela, Osasun
Publikoaren Erakundearteko Batzordea
deritzona. Era berean, 40. artikuluan
eta hurrengoetan hura sortzea
agintzen du, eta honela definitzen du:
osasun publikoaren arloko politikak
lerrokatzeko organoa, bai eta
Euskadiko Osasun Publikoaren
Sistemako euskal administrazio
publikoen arteko koordinazio-, parte-
hartze- eta lankidetzatzaile- organoa ere,
administrazio horiek osasun
publikoaren arloan dituzten
eskumenak kontuan hartuta.

ORDEN DE 12 DE MARZO DE 2026,
DEL CONSEJERO DE SALUD POR EL
QUE SE APRUEBA CON CARÁCTER
PREVIO EL PROYECTO DE
DECRETO POR EL QUE SE REGULAN
LOS ÓRGANOS DE PARTICIPACIÓN
PREVISTOS EN LA LEY DE SALUD
PÚBLICA DE EUSKADI.

Mediante Orden de 20 de febrero de
2026 del consejero de Salud, se dió
inicio al procedimiento de elaboración
del proyecto de Decreto que tiene por
el que se regulan los órganos de
participación previstos en la Ley de
Salud Pública de Euskadi.

El objeto del decreto es el de
desarrollar dos aspectos recogidos en
la Ley 13/2023, de 30 de noviembre,
de Salud Pública de Euskadi, en
adelante LSPE.

En primer lugar, la LSPE prevé en su
artículo 36, la existencia de órgano que
ejerce la coordinación de políticas y
actuaciones que desarrollan las
diferentes AA.PP en materia de Salud
Pública que se denomina Comisión
Interinstitucional de Salud Pública, y
en su artículo 40 y siguientes, ordena
su creación, y lo define como el órgano
de alineación de políticas en materia de
salud pública, así como de
coordinación, colaboración y
participación de las administraciones
públicas vascas integrantes del
Sistema de Salud Pública de Euskadi,
atendiendo a las diferentes
competencias que, en materia de salud
pública, ostentan las mencionadas
administraciones.





Bigarrenik, 47. artikulua aurreikusten du Osasun Publikoaren Euskal Kontseilua sortzea, gizarte zibilaren parte-hartzea bermatzen duen eta osasun publikoaren arloko lege-proiektuei, erregelamenduei eta planei buruzko kontsulta- eta aholkularitza-izaera duen organo goren gisa, «osasuna politika guztietan» eta gobernu onaren printzipioak kontuan hartuta.

Dekretu-proiektua honela osatuta dago: azalpen-zatia, xedapen-zatia (26 artikuluz osatua), xedapen gehigarri bat eta azken xedapen bat.

I. kapitulua: Xedapen orokorrak

- 1. artikulua. Xedea.
- 2. artikulua. Araubide juridikoa.

II. kapitulua: Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordea

- 3. artikulua. Izaera.
- 4. artikulua. Atxikipena eta egoitza.
- 5. artikulua. Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordearen eginkizunak.
- 6. artikulua. Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordearen osaera.

III. kapitulua: Osasun Publikoaren Euskal Kontseilua.

- 7. artikulua. Izaera.
- 8. artikulua. Atxikipena eta egoitza.
- 9. artikulua. Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak.
- 10. artikulua. Osaera.
- 11. artikulua. Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluko kideen dietak eta kalte-ordainak

En segundo lugar, y como órgano superior encargado de la participación de la sociedad civil y de carácter consultivo y asesor respecto de proyectos de ley, reglamentos y planes, en materia de salud pública, atendiendo a los principios de «salud en todas las políticas» y de buen gobierno, el artículo 47, preveé la creación del Consejo Vasco de Salud Pública.

El proyecto de Decreto se compone de una parte expositiva, seguido de una parte dispositiva compuesta de 26 artículos, una disposición adicional y una final.

Capítulo I: Disposiciones generales

- Artículo 1. Objeto.
- Artículo 2. Régimen Jurídico.

Capítulo II: Comisión Interinstitucional de Salud Pública

- Artículo 3. Naturaleza
- Artículo 4. Adscripción y sede.
- Artículo 5. Funciones de la Comisión Interinstitucional de Salud Pública.
- Artículo 6. Composición de la Comisión Interinstitucional de Salud Pública.

Capítulo III: Consejo Vasco de Salud Pública.

- Artículo 7. Naturaleza
- Artículo 8. Adscripción y sede.
- Artículo 9. Funciones del Consejo Vasco de Salud Pública.
- Artículo 10. Composición.
- Artículo 11. Dietas e indemnizaciones de los miembros del Consejo Vasco de Salud Pública



IV. Kapitulua: Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordearen eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluaren funtzionamendua.

- 12. artikulua. Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordearen eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluko kideak hautatzea eta izendatzea
- 13. artikulua. Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordearen eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluko kideen kargu-uztea
- 14. artikulua. Batzordeburua
- 15. artikulua. Idazkaria.
- 16. artikulua. Batzordekideak.
- 17. artikulua. Bitartekoak eta baliabideak
- 18. artikulua. Eratzea eta erabakiak hartzea.
- 19. artikulua. Bilkurak.
- 20. artikulua. Bilkuren aktak.
- 21. artikulua. Lantaldeak.
- 22. artikulua. Antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko erregelamendua.
- 23. artikulua. Ordezko araubidea.
- 24. artikulua. Funtzionamendugastuak.
- 25. artikulua. Ordezkaritza orekatua eta hizkuntza-koofizialtasuna.
- 26. artikulua.- Urteko memoria, publizitatea eta gardentasuna.

Xedapen indargabetzaileak hilabeteko epea ezartzen du bi organoak izendatzeko.

Eta azken xedapenak ezartzen du dekretua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean.

Aurretiazko onarpen-agindu hau xedapen orokorrak egiteko prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluan ezarritakoaren arabera ematen da, eta honako hau ezartzen du:

Capítulo IV: Funcionamiento de la Comisión Interinstitucional de Salud Pública y del Consejo Vasco de Salud Pública.

- Artículo 12. Designación y nombramiento de vocales de la Comisión Interinstitucional de Salud Pública y del Consejo Vasco de Salud Pública.
- Artículo 13. Cese de miembros de la Comisión Interinstitucional de Salud Pública y del Consejo Vasco de Salud Pública.
- Artículo 14. La Presidencia.
- Artículo 15. La Secretaría.
- Artículo 16. La Vocalía.
- Artículo 17. Disponibilidad de medios y recursos.
- Artículo 18. Constitución y adopción de acuerdos.
- Artículo 19. Sesiones.
- Artículo 20. Actas de las sesiones.
- Artículo 21. Grupos de trabajo.
- Artículo 22. Reglamento interno de organización y funcionamiento.
- Artículo 23. Régimen supletorio.
- Artículo 24. Gastos de funcionamiento.
- Artículo 25. Representación equilibrada y régimen de cooficialidad lingüística.
- Artículo 26.- Memoria anual, publicidad y transparencia.

La disposición derogatoria, establece el plazo de un mes para proceder a los nombramientos de ambos órganos.

Y la disposición final, establece la entrada en vigor del decreto al día siguiente de su publicación en el BOPV.

La presente orden de aprobación previa es emitida en base a lo establecido en el artículo 15 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General establece que:



“1. Xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aurretiazko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

2. Aldez aurreko onarpen-aginduari onartutako testu elebiduna eta artikulua honetan adierazitako gainerako dokumentuak erantsiko zaizkio. Horrela, osatuta geratuko da ondoren bete beharreko izapideen xede izango den espedienteak, eta izapideak bideratzeko agindua emango da.

3.”

Horregatik guztiatik, eta lege-proiektuaren testua ikusi ondoren, hau

AGINTZEN DUT:

Lehenengoa. - Aldez aurretik onartzea Euskadiko Osasun Publikoaren Legean aurreikusitako partaidetza-organoei buruzko dekretua

Bigarrena.- Dekretua onartzeko prozedura izapidetzen jarraitzeko agindua ematea, hasteko Aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideen arabera.

“1. Una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el texto articulado correspondiente deberá contar con la aprobación previa acordada por el órgano que haya dictado la orden de inicio.

2. La orden de aprobación previa adjuntará el texto bilingüe así aprobado y el resto de los documentos referidos en este artículo, que conformarán el expediente con el que se seguirán los trámites subsiguientes, ordenando su evacuación inmediata.

3.”

Por todo ello, visto el texto del proyecto de ley elaborado,

ORDENO

Primero. - Aprobar con carácter previo el decreto sobre los órganos de participación previstos en la Ley de Salud Pública de Euskadi

Segundo.- Ordenar la continuación de la tramitación del procedimiento de aprobación del Decreto, de conformidad con los trámites establecidos en la Orden de inicio y en la Ley 6/2022, de 30 de junio del procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data
En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de su firma electrónica

Alberto Martínez Ruiz
Osasuneko sailburua/consejero de Salud

I ERANSKINA

... DEKRETU-PROIEKTUA, ...koa, Euskadiko Osasun Publikoaren Legearn aurreikusitako partaidetza-organoei buruzkoa

Euskadiko Osasun Publikoaren azaroaren 30eko 13/2023 Legeak funtsezko helburu hauek ditu: herritarren osasuna babestea, sustatzea, mantentzea eta hobetzea, esparru indibidualean eta kolektiboan, bai eta osasunaren azpiko baldintzatzaileen gainean jardutea eta gaixotasunak, lesioak eta desgaitasuna prebenitzea ere. Era berean, Euskadiko lurralde-eremuan osasun publikoaren arloko jarduerak, prestazioak eta zerbitzuak antolatu nahi ditu, zerikusia duten organismoen eta administrazio publikoen koordinazioa eta lankidetza bultzatuz. Gainera, *osasuna politika guztietan* ikuspegia txertatzen du, bai ekintza publikoan, bai gizarte zibilak, elkarte profesionalek eta entitate pribatuek sustatutako ekimenetan, ahalegin antolatuan, globalean eta sektore anitzekoan jardunez.

Legearen IV. tituluari, honela taxututa dago Euskadiko Osasun Publikoaren Sistema: sare artikulatu bat da, gaixotasunak, osasun-galera, lesioak eta desgaitasuna prebenitzeko eta pertsonen osasuna babesteko eta sustatzeko prestazio, zerbitzu, ekipamendu eta kudeaketa- eta koordinazio-tresnena.

Sistema hori antolatzeko, 13/2023 Legeak ezartzen du Eusko Jaurlaritzaren erantzukizuna dela Euskadiko osasun publikoko politikak eta estrategiak planifikatzea eta definitzea, baina adierazten du horren ondoriozko jarduketa zehatzak eragile publiko eta pribatuek garatuko dituztela, sanitarioek eta ez-sanitarioek, eta gizartearen parte-hartzearekin. Sare gisa lan egiteko modu horrekin bat etorritik, *osasuna politika guztietan* printzipioari eta gobernu onaren jarraituz, bi organo sortu behar dira, koordinaziorako, kontsultarako, aholkularitzarako eta parte-hartzerako garrantzitsuak direnak.

Hala, 13/2023 Legeak ezartzen du, V. tituluaren III. kapituluari, Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzorde bat eratu behar dela, kide anitzeko organo bat, osasun publikoaren arloan EAEko administrazio publiko guztien koordinazioa, lankidetza eta parte-hartzea izango dituen, honetarako:

- Euskadiko Osasun Publikoaren Sistemaren kohesioa eta arlo horretako politika publikoen bat-etortzea bermatzea
- Sistema hori osatzen duten administrazio publikoen benetako koordinazio, lankidetza eta parte-hartzea bermatzea, osasun publikoaren arloan zer eskumen dituzten kontuan hartuta
- Osasun publikoaren arloan erakundeen arteko lankidetza-betebeharra hobeto eta eraginkorrago gauzatzea

- Eskumenen gainjartzeak edo konkurrentziak saihestea EAEko administrazioek eskumenak baliatzean
- Baliabideak modu efizientean erabiltzen direla ziurtatzea
- Osasun publikoaren arloko eskumenak baliatzeko informazio garrantzitsua elkarri ematea

13/2023 Legearen 41. artikulua Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordea definitzen du, nori atxikita dagoen adierazten eta haren osaera eta eginkizunak zehazten.

Erakundearteko topaketa- eta lankidetzatza-organo horretaz gain, Euskadiko Osasun Publikoaren Legeak, 47. artikuluan, Osasun Publikoaren Euskal Kontseilua ezartzen du, gizarte zibilak parte hartzeko kide anitzeko organo goren gisa eta osasun publikoaren arloko kontsulta- eta aholku-organo gisa. Artikulu horrek haren osaera eta eginkizunak zehazten ditu.

Bi organoak —Erakundearteko Batzordea eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseilua— osasunaren arloan eskumena duen sailari atxikitzen zaizkio, eta Osasungintza Osasun Publikoaren Euskal Erakundearen laguntza, babesa eta bultzada izango dituzte. Haien oinarritzko funtzionamendua Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea egokitzen da.

Horrenbestez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, nahitaezko aholku-organoei iritzia eskatuta, Osasuneko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak XXXXXX(e)ko bilkuran proposamena aztertutik ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea.

1.— Dekretu honen xedea da Euskadiko Osasun Publikoaren azaroaren 30eko 13/2023 Legean aurreikusitako koordinazio-, kontsulta-, aholkularitza- eta partaidetza-organoak definitzea, arautzea eta artikulatzea, Eusko Jaurlaritzan osasun-arloko eskumena duen sailari atxikiak, eta organo hauen eginkizunak, osaera eta funtzionamendua arautzea:

- Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordea
- Osasun Publikoaren Euskal Kontseilua

2. artikulua.- Araubide juridikoa.

Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeak eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluak Euskadiko Osasun Publikoaren azaroaren 30eko 13/2023 Legearen 41. eta 47. artikuluetan, dekretu honetan eta dagokion organoak menturaz onartzen duen barne-funtzionamenduko erregelamenduan xedatutakoari jarraituko diote. Arau horietan aurreikusten ez diren kontuetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18.era xedatutakoari jarraituko zaio.

II. KAPITULUA

OSASUN PUBLIKOAREN ERAKUNDEARTEKO BATZORDEA

3. artikulua.- Izaera.

13/2023 Legeak (13/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, Euskadiko Osasun Publikoarena) 41. artikuluan aurreikusten duenarekin bat etorriz, Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordea osasun publikoaren arloko politikak bateratzeko organoa da, bai eta, Euskadiko Osasun Publikoaren Sistema osatzen duten administrazio publikoek osasun publikoaren arloan zer eskumen dituzten kontuan hartuta, haiek koordinatzeko, lankidetzan aritzeko eta parte hartzeko organoa ere.

Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordea osasun publikoaren arloan erakundeen arteko lankidetzaz-betebeharra hobeto eta eraginkorrago gauzatzeko eratzen da, Euskadiko Osasun Publikoaren Sistemaren kohesioa bermatzeko eta eskumenak baliatzean EAEko administrazioen artean gainjartzeak edo eskumen-konkurrentziak saihesteko asmoz, bai eta informazioa trukatzeko eta benetako koordinazioa bermatzeko asmoz ere.

4. artikulua.- Atxikipena eta egoitza.

1. Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordea Eusko Jaurlaritzan osasun-arloko eskumena duen sailari atxikita dago.

2. Sail horren egoitza bera izango du, baina horrek ez du eragotziko ohiko edo ezohiko bilkurak Euskal Autonomia Erkidegoko beste edozein tokitan egitea, presidentearen erabakiz deialdian hala zehazten bada.

5. Artikulua.- Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordearen eginkizunak.

Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeak eginkizun hauek ditu:

a) Aldez aurreko txostena egitea lege honetatik eratortzen diren osasun publikoaren arloko araudiari eta erregelamenduzko xedapenei buruz, bai eta Euskadiko Osasun Planari buruz ere.

b) Euskadiko administrazio publikoek osasun publikoaren arloan erabaki beharreko estrategia nagusiak, tresna komunak eta proposamenak eztabaidatzea eta proposatzea.

c) Administrazioen arteko lankidetzak-tresnak eta ordenamendu juridikoan aurreikusitako eskumenak baliatzeko formulak izenpetzeko irizpideen proposamenak egitea, bai eta tresna horien oinarri izan behar duten aurrekontuak eta kredituak ere.

d) Osasun-larrialdietan —osasun-krisiak eta pandemiak barne—, batzordea osatzen duten administrazioen arteko lankidetzak-akordioak edo -hitzarmenak eztabaidatu eta proposatu ahal izango dira, egoera horiek kudeatzeko, osasun-larrialdiari aurre egiteko beharrezkoak diren funtzioak eta zereginak bere gain hartzea barne.

e) Ordenamendu juridikoak esleitzen dion beste edozein eginkizun.

Era berean, bere antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamendua egin eta onartuko du.

6. artikulua.- Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordearen osaera.

1. Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeko burua osasun-arloan eskumenak dituen sailburua da, eta batzordekideak, berriz, osasunaren arloan eragina duten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailen edo arloen ordezkariak, goi-kargudun direnak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundien eta udalen ordezkariak, goi-kargudun edo hautetsi direnak. Kide horietako bakoitzeko, ordezkari bat izendatuko da.

Batzordeko idazkaria Osasungintza Osasun Publikoaren Euskal Erakundeko teknikari bat izango da, eta batzordeburuak izendatuko du.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak ordezkari hauek izango ditu Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordean:

a) Bokal bat, gizarte-politiketan eskuduna den sailaren izenean.

b) Bokal bat, hezkuntza-arloan eskuduna den sailaren izenean.

c) Bokal bat, ingurumenaren arloan eskuduna den sailaren izenean.

d) Bokal bat, laneko segurtasunaren, osasunaren, higiearen eta ingurumenaren arloan eskuduna den sailaren izenean.

e) Bokal bat, nekazaritzaren eta elikaduraren arloan eskuduna den sailaren izenean.

f) Osasun Saileko Osasungintza Osasun Publikoaren Euskal Erakundeko zuzendaria.

g) Bokal bat, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuaren izenean.

3. Foru-aldundiek eta udalek ordezkari hauek izango dituzte Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordean:

- a) Bokal bana, foru-aldundi bakoitzaren izenean.
- b) Bokal bana, lurralde historikoetako hiriburuetako udal bakoitzaren izenean.
- c) Udalen ordezkari bat, Eudel Euskadiko Udalen Elkartearen bidez izendatua, Autonomia Erkidegoan ezarpen handiena duen toki-entitateen elkarte den aldetik.

4. Parekidetasun-irizpideei jarraituz aukeratuko dira bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren ordezkariak bai toki- eta foru-administrazioenak.

5. Batzordeko kideek ez dute ordainsaririk, kalte-ordainik edo dietarik jasoko Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordearen bileretara joateagatik eta batzordearen eginkizunak beren gain hartzeagatik.

III. KAPITULUA

OSASUN PUBLIKOAREN EUSKAL KONTSEILUA

7. artikulua.- Izaera.

13/2023 Legeak (13/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, Euskadiko Osasun Publikoarena)
47. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, Osasun Publikoaren Euskal Kontseilua gizarte zibilaren parte-hartzerako eta osasun publikoaren arloko lege-proiektu, erregelamendu eta planei buruzko kontsultarako eta aholkularitzarako organo gorena da, *osasuna politika guztietan* printzipioari eta gobernu onarenari kasu eginez.

8. artikulua.- Atxikipena eta egoitza.

Osasun Publikoaren Euskal Kontseilua Eusko Jaurlaritzan osasun-arloko eskumena duen sailari atxikita egongo da.

2. Sail horren egoitza bera izango du, baina horrek ez du eragotziko ohiko edo ezohiko bilkurak Euskal Autonomia Erkidegoko beste edozein tokitan egitea, Kontseiluko presidentearen erabakiz deialdian hala zehazten bada.

9. artikulua.- Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak.

Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluak eginkizun hauek ditu:

- a) Egokitze jotzen dituen nahi beste txosten, iradokizun, gomendio, azterlan eta proposamen egitea; horretarako, behar duen informazioa eskuratu ahal izango du.
- b) EAEko administrazio publikoei aholku ematea osasun publikoaren arloan ematen zaizkion aztergaietan.

- c) Txostenak egitea EAEko administrazio publikoek egiten dituzten eta osasun publikoan eragina duten plan eta xedapen orokorrak izapidetzen direnean.
- d) Bere antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamendua egitea.
- e) Euskadiko Osasun Planaren prestaketaren, jarraipenaren eta betetze-mailaren berri izatea.
- f) Erregelamendu bidez zehazten den beste edozein eginkizun betetzea.

10. artikulua.- Osaera.

1.– Osasun Publikoaren Euskal Kontseilua honela osatuta egongo da:

- a) Presidentea: Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailburua izango da.
- b) Idazkaria: Osasungintza Osasun Publikoaren Euskal Erakundeko teknikari bat izango da, Kontseiluko buruak izendatua.
- c) Presidenteordea: Osasungintza Osasun Publikoaren Euskal Erakundeko zuzendaria.
- d) Bokalak:
 - Bokal bana, Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordean ordezkatuta dagoen Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko.
 - Bokal bat, gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasuna sustatzeko politikez arduratzen den Eusko Jaurlaritzaren organoaren izenean.
 - Hiru foru-aldundien bokal bana.
 - Euskal Udalen Elkarteak (EUDEL) izendatutako bi kide.
 - Osasun publikoaren arloan ospe eta gaitasun aitortua duten pertsonen artean Osasungintza Osasun Publikoaren Euskal Erakundeak izendaturiko lau bokal.
 - Bokal bat, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuaren izenean.
 - Bokal bat, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateen izenean.
 - Bokal bat, dagokien lanbide-elkargoen izenean.
 - Bokal bat, gaixoei eta haien familiei osatutako elkarte, irabazi-asmorik gabeko entitate edo gobernuz kanpoko erakundeen izenean.
 - Euskal Autonomia Erkidego osoan diharduten kontsumitzaileen elkarte edo federazioek izendaturiko kide bat.

- Bokal bat, Euskal Autonomia Erkidego osoan diharduten pentsiodun eta erretiratuen antolakunde edo federazioen izenean.
- Bokal bat, EAEn editatzen diren gizarte-hedabideen izenean.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak izendaturiko kide bat.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak izendaturiko kide bat.
- Euskadiko Eskola Kontseiluak izendaturiko kide bat.
- Ordezkaritzarik handiena duten sektore arteko enpresaburu-erakundeek izendaturiko bi bokal.
- Kide bana, lanbide-elkargo hauetako bakoitzeko: medikuntza, farmazia, albaitaritza, biologia eta erizaintzakoak.

2.– Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluak hala erabakita, eta aztergaien izaera aintzat hartuta, bilkuretara joatea izango dute ordezkaturako administrazioetako maila teknikoko pertsonak, bai eta gizarte-sektoreak eta sektore ekonomikoak ordezkatzeko dituzten antolakundearen ordezkariak edo ezagutza, esperientzia eta egiaztatutako ospea izateagatik osasun publikoaren arloan aditutzat har daitezkeenak ere. Pertsona horiek hitza izango dute, baina botorik ez. Behar izanez gero, generoan adituak diren pertsonen laguntza ere izango da.

11. artikulua.- Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluko kideen dietak eta kalte-ordainak.

Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluaren bilkuretara joateak eskubidea emango du ezartzen diren diru kopuruak jasotzeko, dieta eta kalte-ordain gisa, otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan eta indarrean dauden gainerako arauetan xedatutakoari jarraituz betiere.

IV. KAPITULUA

OSASUN PUBLIKOAREN ERAKUNDEARTEKO BATZORDEAREN ETA OSASUN PUBLIKOAREN EUSKAL KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA

12. artikulua.- Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeko eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluko bokalak hautatzea eta izendatzea.

1. Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeko eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluko bokalak eta haien ordezkariak osasun-arloan eskumena duen saileko sailburuak izendatu eta kenduko ditu, agindu bidez, ordezkatzeko duten sail eta entitateak proposatuta.

2. Ordezkatutako sail eta entitateek hogeiei egun dituzte beren bokalak hautatzeko, eta bokala ez hautatzea ez da eragozpena izango organoa eratzeke eta lanean jarduteko. Hautatzeko eskaera jasotzen denean hasten da epe hori.

3. Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeko eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluko bokalak lau urterako izendatuko dira —eta berritu daiteke aldia, hurrenez hurren—, 13. artikuluan aurreikusitako egoeretan izan ezik edo ordezkatzen dituzten sail eta entitateetako titularrek izendapena ezeztatzen dutenean izan ezik; kasu horietan, haien ordezkoek agintaldia amaitzeko geratzen den denborarako izendatuko dira.

13. artikulua.- Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeko eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluko kide izateari uztea.

Arrazoi hauengatik utziko zaio Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeko eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluko kide izateari:

- a) Agintaldia bukatzea
- b) Ordezkatzen dituzten sail eta entitateetako titularrek emandako kargua baliogabetzea edo kentzea
- c) Izendatua edo hautatua izateko balio izan zion eta betetzen zuen kargu edo lanpostua galtzea
- d) Uko egitea
- e) Heriotza
- f) Legezko ezintasuna etortzea
- g) Kargu publikoak betetzeko desgaitzea edo aukera hori aldi baterako kentzea ebazpen judizial edo administratibo irmo batek

14. artikulua.- Presidenteak.

1.— Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeko eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluko buruek eginkizun hauek dituzte:

- a) Organoa ordezkatzea
- b) Ohiko eta ezohiko bilkuretarako deialdia egitea, eta gai-zerrenda finkatzea, salbu presidenteak presa handia dagoela irizten dionean; gai-zerrenda deialdian bertan adierazi behar da, eta halaber eguna, lehenengo deialdiaren ordua, bigarren deialdiarena eta lekua.
- c) Organoaren jarduketak zuzentzea

- e) Bilkuretara dei egitea
- f) Bilkuretako buru egitea; eztabaidak bideratzea, eta eztabaida horiek etetea, bidezkoa izanez gero
- g) Berdinketak ebaztea, kalitateko botoa baliatuz, erabakiak hartze aldera
- h) Organoaren aktak eta ziurtagiriak, erabakiak, irizpenak, txostenak eta gomendioak legitimatzea haiek sinatuz
- i) Salbuespenez, bilkura aurrez aurre bakarrik egitea edo urrutitik egitea erabakitzea. Dagokion deialdian, erabaki horren arrazoiak adierazi behar dira.
- j) Dekretu hau bete dadila begiratzea, berari buruzko interpretazio-zalantzak argitzea eta legeak betetzen direla ziurtatzea
- k) Organo horietako buruari berez dagokion beste edozein eginkizun

2.– Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeko edo Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluko burua gaixorik badago, edo postuan ez badago, Osasungintza Osasun Publikoaren Euskal Erakunde zuzendariak ordezkatu du.

15. artikulua.- Idazkaria.

Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeko eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluko idazkariak eginkizun hauek dituzte:

- a) Presidentearen aginduz, bilkuretarako deialdia egitea, gai-zerrenda prestatzea eta Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeko eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluko kideei zitazioak egitea.
- b) Egiten diren bilkuretara joatea; hitza izango du, baina botorik ez.
- c) Bilkuren aktak idaztea eta hartutako erabakien ziurtagiriak egitea.
- d) Dokumentazioa zaintzea, bilkuretako gai-zerrendako aztergaiena barne.
- e) Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeari edo Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluari aurkeztu nahi zaizkien gai, txosten, proposamen edo dokumentu guztiak jasotzea, antolatzea eta aztertzeke prestatzea.
- f) Organo horien jarduketak formaz eta edukiz legezkoak direla zaintzea.
- g) Sektore publikoaren araubide juridikoaren legediak kide anitzeko organoetako idazkaritzari esleitzen dizkion eginkizunak.

16. artikulua.- Bokalak.

Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeko eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluko bokalek eginkizun hauek dituzte:

- a) Bilkuretarako deialdia jasotzea, gai-ordena barnean duela.
- b) Deialdia jasotakoan, bilkuretara joatea, bertako eztabaida, azterlan eta proposamenetan parte hartzea eta aztergaien gainean galderak eta eskeak egitea.
- c) Botoa emateko eskubideaz baliatzea, boto partikularra ematea eta botoaren esanahia eta arrazoiak azaltzea. Administrazio publikoen zerbitzuko langile edo agintari izateagatik betetzen duten kargua betetzen dutela-eta kide anitzeko organoetako berezko kide direnak ezin izango dira abstenitu bozketetan.
- d) Akten ziurtagiriak eskatzea, idazkariaren bidez.
- e) Proposamenak, iradokizunak eta galderak egitea.
- f) Eginkizunak betetzeko behar den informazioa eta dokumentazioa eskuratzea.
- g) Berez dagokien beste edozein eginkizun betetzea.

17. artikulua.- Bitartekoak eta baliabideak.

Beren eginkizunak betetzeko, Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeak eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluak behar diren bitartekoak eta baliabideak izango dituzte egoki funtzionatzeko. Bi organoak atxikita dauden sailak haien esku jarriko ditu bitarteko eta baliabide horiek.

18. artikulua.- Eratzea eta erabakiak hartzea.

1. Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordea eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseilua modu presentzian nahiz telematikoki eratu daitezke, eta halaxe egin ditzakete, halaber, bilkurak, halaxe erabakiak hartu eta halaxe aktak bidali.
2. Bilkurak arauz eratzeak, beharrezkoa izango da presidentea eta idazkaria edo haien ordezkioak eta, gutxienez, organoko kideen erdiak eta bat gehiago bertaratzea.
3. Behar besteko quorumik ez badago, bigarren deialdian bilduko dira, 15 minutu geroago, eta, eraketa arauzkoa izan dadin, nahikoa izango da presidentea eta idazkaria, edo haien ordezkioak, eta kideen herenak bertan izatea.
4. Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeko burua, idazkaria eta kide guztiak edo haien ordezkioak modu presentzian edo telematikoki bilduta daudenean, arauzkoa izango da bilkurak egitea, eztabaidatzea eta erabakiak hartzea alde aurretik deialdia egin beharrik izan gabe, baldin eta kide guztiek hala erabakitzen badute.

5. Ezin izango da eztabaidatu edo erabakirik hartu gai-zerrendan sartuta ez dauden gaiei buruz, salbu eta batzordekide edo kontseilukide guztiak bertan badaude eta gaia presakotzat jotzen bada gehienen aldeko botoaz.

6. Urrutitik egiten diren bilkuretan, batzordekideak edo kontseilukideak nahi duten tokian egon daitezke, baldin eta bitarteko elektronikoz —telefonikoak barne— eta ikus-entzunezko bitartekoak erabiliz honako hauek ziurtatzen badira: kideak edo haien ordezkioak nor diren, zer adierazten duten eta adierazpen horiek zer unetan egiten diren; gainera, haien interaktibitatea edo komunikazioa denbora errealean gertatu behar da, eta bileran bitarteko egokiak izan behar dira. Posta elektronikoa eta bideokonferentziek, esaterako, balio dute.

7. Kide bakoitzak boto bat izango du. Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordearen eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluaren erabakiak kideen gehiengo soilak hartuko ditu, eta desadostasuna adierazten dutenek boto partikular arrazoitua eman ahal izango dute.

8. Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordearen eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluaren bilkuretan, botoa beste kide bati eskuordetzeko figura onartuko da, salbuespenez, baldin eta eskuordetze hori balorazio jakin baterako bada espresuki, eta hala adierazten bada egiaztatgiri batean.

9. Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordea eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseilua zer saili atxikita dauden, haien erabakiak sail haren egoitzan hartzen direla iritziko zaio.

19. artikulua.- Bilkurak.

1.— Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordearen eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluaren bilkurak ohikoak edo bereziak izan daitezke.

2.— Gutxienez, urtean behin egingo da ohiko bilkura.

3.— Bilkura bereziak kasu hauetan egin daitezke:

a) Presidentearen eskariz

b) Gutxienez, kideen herenen eskariz

4.— Bilkura bereziak egiteko epea hogeitun egun naturalekoa izango da gehienez, eskaera erregistratzen den egunetik hasita.

20. artikulua.- Bilkuren aktak.

1. Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordearen eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluaren idazkariei dagokie bilkura bakoitzaren akta egitea, eta presidenteei oniritzia eman behar diote. Kargu horiek betetzen dituztenek sinatu behar dute, elektronikoki.

2. Akta bide elektronikoen bidez bidaliko zaie batzordekideei eta kontseilukideei. Eta haiek bide hori bera erabiliz adieraz dezakete testuarekin ados dauden ala ez, akta onartzeko; testuarekin ados agertuz gero, bileran bertan onartutzat joko da. Bilkuran bertan edo hurrengo bilkuran erabakiko onartzen den ala ez.

3. Aktan hauek zehaztu beharko dira: bertaratu direnen izenak, bilkurako gaitzerrenda, bilkura egin den lekua eta ordua, eztabaidetako gai nagusiak eta hartu diren erabakien edukia.

4. Bilkurak grabatzea edo euskarri elektronikoko agiriak erabiltzea erabakiz gero, hortik ateratako fitxategi elektronikoak benetakoak eta osoak direla bermatzeko moduan gorde beharko dira, bai eta Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeko eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluko kideek eskuratzeko moduan ere.

21. artikulua.- Lantaldeak

Presidenteak, Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordearen eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluaren erabakiz, gaien araberrako lantaldeak eratu ditzake. Lantalde horiek batzordeko eta kontseiluko kideek osatuko dituzte, eta, batzuetan, baita azterlan espezifikoak egiteko eta proposamenak egiteko izendatutako kanpoko adituek ere. Egokitzen jotzen den kide kopurua izango dute. Kanpoko pertsona horiek hitza izango dute bilkuretan, baina botorik ez.

22. artikulua.- Antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko erregelamendua.

Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeak eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluak beren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko barne-erregelamendua prestatu eta onartu dezakete dekretu honen esparruan.

23. artikulua.- Araubide osagarria.

Dekretu honetan eta antolamenduari eta funtzionamenduari buruz dagokeen barne-erregelamenduan aurreikusita ez dagoen guztian, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitakoari jarraituko diote Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeak eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluak.

24. artikulua.- Funtzionamendu-gastuak.

Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordearen eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluaren funtzionamendu-gastuak osasun-arloan eskuduna den sailaren aurrekontu-kredituen konturakoak izango dira.

25. artikulua.- Ordezkaritza orekatua eta hizkuntzen koofizialtasuna.

1.— Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordeak eta Osasun Publikoaren Euskal Kontseiluak emakumeen eta gizonen ordezkari itza orekatua izan behar dute,

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean jasotako irizpideei jarraituz.

